

Irakasleen prestakuntza eta prestakuntzaren ikerketa: hautu teorikoak, metodologikoak eta esperientziak. Prefazioa

Irakasleen prestakuntza gai ardatza da hezkuntzaren erronkei erantzun ahal izateko etengabe aldatzen ari den gizartean. Testuinguru horretan sortzen da irakasleen formaziorako metodologia eta lanabes berriak sortzeko premia, nagusiki prestakuntza eta ikerketa artikulatzen dituztenak. Ikuspegi teoriko askotatik elikatzen da prestakuntza, zenbaki honetan bertan jaso ditugu ardatzen direnak, besteak beste, konpetenzien logikan, praktika gogoetatsuan, ikaskuntza “errealistan”, jardueraren azterketan edota ikerketa-jardueran. Oro har, formazio eredu kolaboratzaileetatik garatzen dira proposamenok, eta aldaketa nabarmenak ekarri dituzte irakasle lanbidearen prestakuntza egiteko moduetan.

Hamahiru lan biltzen dira *Ikastaria* aldizkariaren 19. zenbaki honetan. Askotariko ahotsak jasotzen dira, batzuk hasierako prestakuntzari dagozkie, beste batzuk etengabeko prestakuntzari; batzuk diziplina espezifikoko baten markoan eraikitzen dira, beste batzuek helburu pedagogiko orokorrei erantzuten diete. Guztiek dute, hala ere, jomuga irakasleen prestakuntzan sakontzea eta hori eraginkorra goa egitea.

Lehen artikuluan, Olga Estevek gogorarazten du irakasleen formazioan teoria eta praktikaren arteko lotura problematikoa dela oraindik ere. Erlazio hori eraikitzeko indagazio proiektuetan oinarritzen da eta bi adibide dakartza prozesua ilustratzeko. Adibide horiek kasu ebazpenak egitean dautza.

Sabine Vanhullen lanean etorkizuneko irakasleen jakintza profesionalen erakuntzan parte hartzen duten prozesuak deskribatu eta ulertu nahi dira diskurtso analisiaren bidez. Hizkuntzaren eta jakintzen ikaskuntzaren arteko harremanez ari zaigu, zentzuaren sorreraren eta garapenaren arteko loturaz. Bigarren Hezkuntzako irakasleen garapen profesionaleko dosierrak erabiltzen ditu tresna gisa.

Hirugarren artikuluan Arantza Ozaetak bi ardatzen inguruan antolatzen du bere artikulua, batetik, irakaslearen prestakuntzarako marko bat proposatzen du jardueraren analisisan oinarrituta eta autokonfrontazioa duena formaziorako tresna gisa; bestetik, prestakuntza horren ikerketarako azterketa norabideak dakartza.

Margarida Falgàs eta Mariona Masgrau autoreek euren artikuluan aztertzen dute Hezkuntza Graduko ikasleek egiten duten gogoeta instrumentatua, bai practicumean, bai Haur Hezkuntzako irakurketa-idazketa moduluan. Horretarako oinarritzen dira praktika gogoetatsuan eta metodologia klinikoetan.

Ana Arregik, Nerea Badiolak, Kristina Elosegik, Itziar Iriondok, Uri Ruiz Bikan-dik, Teresa Zulaikak eta Itziar Plazaolak hiru irakasle hasiberrik practicum garaian egindako autokonfrontazioak aztertzen dituzte eta ondorioztatzen dute egileak, iker-tzailearen laguntzaz, bere jarduera «kanpotik» behatzen eta irakaskuntza ekintza berriak hobetzeko aldagaiak sustatzen dituela.

Agurtzane Azpeitiak, Idurre Alonsok eta Eneritz Garrok ere Lehen Hezkuntzako Graduko practicum garaian erreparatzen diote eta irakasle hasiberri baten auto-konfrontazioa aztertzen dute begirada bikoitzarekin: batetik, irakasle hasiberriaren berbaldia eta, bestetik, prestatzaile-ikertzailearen esku-hartzea.

Matilde Sainz Osinagaren eta Arantza Ozaetaren lana, berriz, etengabeko pres-takuntzan kokatzen da. Debatearen inguruko formazio plan baten barruan egin di-ren bi autokonfrontazio alderatzen dute ekintza tipikoen bila. Irakasle bat espe-rientzia luzekoa da eta bestea laburrekoa.

María Jesús Anakabe, Roberto Mielgo eta Begoña Ocioren ekarpena etenga-beko prestakuntzan kokatzen da, eta hizkuntzaren didaktikaren alorrean egindako ibilbide luzearen gogoeta da. Prestakuntza gogoeta horren harira, ikastetxeetan aur-kitu dituzten oztopoen diagnostia eta hobekuntza proposamena dakarte.

Mariam Bilbatuak, Ana Usabiaga eta Ainara Artetxek etengabeko prestakun-tza proiektu baten esperientzia azaltzen dute, ikasleen formazioa, irakasleena eta ikastetxearen kultura aldaketa sustatu nahi dituen. Formazio gaia ikaskidetzeta edo kooperazioan oinarritutako ikaste prozesuak bultzatzean datza.

Hamargarren artikuluan Maite García eta Nagore Iñurrategik, metodologia ak-tiboan markoan, “ikasten ikasi” konpetentzia garatzeko aldagai sozio-afektiboak eta emozionalak aztertu dituzte unibertsitateko ikasleengan. Horretarako, ikasleen eta irakasleen ahotsak analizatzen dituzte.

Elena Lopez de Arana, Zaine Rekondo eta Eider Salegi irakasleek Haur Hez-kuntzako Graduan kokatzen den esperientzia baten berri ematen dute. Bertan azal-tzen da nola ziurgabeak diren testuinguruek laguntzen duten ikasleen pentsamendu konplexuaren garapenean.

Irene López-Goñik eta Jesús Goñik etengabeko prestakuntzan erabiltzen diren formatuen gaineko gogoeta egiten dute eta hautu bat egiten dute prestakuntza ekintzak aplikazio testuingurura hurbiltzearen alde, modu horretan irakaslearen kon-petentzia profesionala hobetzeko. Egileek egindako esperientzia baten bidez adi-bidetzen dute formazio modu hori.

Aitziber Sarobe, Xabier Arregi, Iker Azkue, Oihana Elorza eta Jaione Uriarte egileek abiapuntu hartzen dute Zientzia, Teknologia eta Osasun-kulturarako konpetentzia nola definitzen duen Oinarrizko Curriculum Diseinuak eta azaltzen dute Lehen Hezkuntza Graduan nola lantzen den arlo hori. Halaber, ikasleen iritziak kontuan hartuz esperientzia horren ebaluazioa egiten dute.

Azkenik, Jean-Paul Bronckarten hitzek itxiera ematen diote Ikastariaren 19. zenbaki honi. Hala, eskerrak eman nahi dizkiegu egile guztiei euren ekarpenengatik, eta bereziki Bronckart irakasleari zenbaki honen harira irakasleen prestakuntzaren inguruan egin duen laburbiltze lan eta gogoetarik.

Matilde Sainz Osinaga, Arantza Ozaeta Elorza eta Eneritz Garro Larrañaga
Koordinatzaileak

Formación del profesorado e investigación sobre la formación: opciones teóricas, metodológicas y experiencias. Prefacio

En la sociedad cambiante en la que vivimos la formación del profesorado es un tema crucial para dar respuesta a los retos de la educación. En ese contexto surgen y se desarrollan nuevas metodologías y nuevos instrumentos para la formación del profesorado, entre los cuales se encuentran los que articulan formación e investigación. La formación se nutre de diversas fuentes teóricas, en este número de la revista *Ikastaria* encontraremos, entre otros, los enfoques que se sustentan en la lógica de las competencias, en la práctica reflexiva, en la enseñanza “realista”, en el análisis de la actividad o en la investigación-acción. Todas estas propuestas surgen de modelos de formación colaborativos y todos ellos han contribuido al cambio tanto en la formación inicial como en la formación permanente del profesorado.

Ikastaria 19 recoge trece trabajos que provienen de diversas voces, unas se refieren a la formación inicial, otras a la formación continua; algunos trabajos han sido construidos en el marco de una disciplina específica, otros dan respuesta a objetivos pedagógicos generales. Sin embargo, todos ellos persiguen el logro de una formación más profunda y eficaz.

En el primer artículo, Olga Esteve nos recuerda que en la formación del profesorado la vinculación entre práctica y teoría continúa siendo objeto de debate. Para construir esa relación se fundamenta en proyectos basados en la indagación de una solución realista y nos muestra dos ejemplos a modo ilustrativo.

Sabine Vanhulle describe en su trabajo los procesos de construcción de la profesionalización de futuros enseñantes, basándose en el análisis discursivo. Nos muestra las relaciones entre lengua y conocimientos profesionales. Para ello se sirve de los dosieres de desarrollo profesional de enseñantes de Educación Secundaria.

En el tercer artículo Arantza Ozaeta articula su trabajo en torno a dos ejes, por un lado, propone un marco de formación del profesorado basado en el análisis de la actividad y en la metodología formativa de la autoconfrontación; y por otro lado, propone algunos criterios a seguir para investigar dicha formación.

Las autoras Margarida Falgàs y Mariona Masgrau analizan la reflexión instrumentalizada que realizan durante el practicum los alumnos del Grado de Educación Infantil en el módulo de lectura-escritura. Para ello se basan en la metodología clínica y en la práctica reflexiva.

Ana Arregi, Nerea Badiola, Kristina Elosegí, Itziar Iriondo, Uri Ruiz Bikandi, Teresa Zulaika e Itziar Plazaola analizan las verbalizaciones de tres alumnas de Grado de Educación durante la sesión de autoconfrontación grabada durante el practicum. En este trabajo se observa que la mirada “externa” de la propia actividad propicia un resultado formativo.

Agurtzane Azpeitia, Idurre Alonso y Eneritz Garro analizan también la sesión de autoconfrontación de una alumna de Grado de Educación Primaria sobre el vídeo grabado durante el practicum. El análisis lo realizan teniendo en cuenta dos aspectos: por un lado, las verbalizaciones de dicha alumna y por otro, la intervención de las formadoras-investigadoras que le acompañan.

El trabajo de Matilde Sainz Osinaga y Arantza Ozaeta, sin embargo, se sitúa en la formación permanente del profesorado. Analizan y comparan las autoconfrontaciones de dos profesores, uno de larga experiencia y el otro novel, en un marco formativo sobre la didáctica del debate socio-científico. Dicho análisis se realiza en torno a las actividades típicas de cada uno de ellos.

La aportación de María Jesús Anakabe, Roberto Mielgo y Begoña Ocio versa sobre la reflexión realizada en torno a un largo periodo de formación continua sobre la didáctica de la lengua. Realizan un diagnóstico sobre los obstáculos encontrados y aportan posibles vías de solución.

Mariam Bilbatua, Ana Usabiaga y Ainara Artetxe también se sitúan en la formación permanente y persiguen mostrar un modelo de formación basado en procesos de aprendizaje cooperativos. En esta experiencia nos muestran la necesidad de implicar tanto al alumnado como a los docentes y promover un cambio cultural en el centro educativo.

En el décimo artículo Maite García y Nagore Iñurrategi analizan la relevancia de las variables socio-afectivas para el desarrollo de la competencia “aprender a aprender” en el marco de las metodologías activas en alumnos universitarios. Para ello, analizan las voces del alumnado y del profesorado.

Las autoras Elena López de Arana, Zaine Rekondo y Eider Salegi nos muestran una experiencia en el Grado de Educación Infantil, donde explican cómo los contextos de incertidumbre ayudan al alumnado en el desarrollo del pensamiento complejo.

Irene López-Goñi y Jesús Goñi reflexionan sobre el formato que se utiliza regularmente en la formación permanente y optan por una opción formativa que se acerque al contexto de aplicación real de dicha formación. Con ello se pretende

que el enseñante pueda desarrollar las competencias profesionales. Los autores nos muestran un ejemplo de formación en ese sentido.

Los autores Aitziber Sarobe, Xabier Arregi, Iker Azkue, Oihana Elorza y Jaione Uriarte toman como objeto de estudio las competencias en Ciencia, Tecnología y Salud en el Grado de Educación Primaria. Por un lado, realizan una lectura de las competencias descritas en el Diseño Curricular Base de Educación Primaria y en la materialización de estas competencias en el currículo del Grado de Primaria; por otro lado, analizan la valoración que el alumnado realiza sobre el desarrollo de dichas competencias.

Por último, recogemos las palabras de Jean-Paul Bronckart en forma de postfacio que cierran este número. Agradecemos a todos los autores su trabajo y participación en esta edición de la revista *Ikastaria* y, en particular, al profesor Bronckart por las líneas de reflexión que nos propone sobre de la formación del profesorado, tema central de este número.

Matilde Sainz Osinaga, Arantza Ozaeta Elorza y Eneritz Garro Larrañaga
Coordinadoras